

Inaxio Oliveri: «Titulazioen eskaintza oinarritzkoa eta zabala da EHUn»

Ikasgai eta titulazioen razionalizatzea bilatzen du atzo aurkeztutako dekretuak

Jon Rejado / Gasteiz

Unibertsitaterako titulazioen garapena erregulatuko duen dekretua aurkeztu zuen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburu Inaxio Oliverik. Dekretua oso garrantzitsutzat jo zuen, eta bere bidez titulazioak gaurkotuko dituzte gizartearen beharren arabera.

INAXIO OLIVERI Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailburuak atzo aurkeztu zuen datorren urteko Euskal Herriko Unibertsitateko titulazioen garapena erregulatuko duen dekretua, Unibertsitatea Antolatze Legean (UAL) oinarritua.

Dekretu horren bidez ziklo motzeko titulazioak zabalduko dira kanpus guztietara, ziklo luzekoak, gehienbat, zeuden bezala mantenduz. Aurkeztutako dekretua «oso garrantzitsua» dela azpimarratu zuen, bizi den garaia oso garrantzitsua baita EHU-arentzako.

Inaxio Oliverik azaldu zuen gizartearen bilakaerak behar batzuk eskatzen dituzte ikasketetan, horrek titulazioen sailkapen bat eskatzen du: betidanik ematen direnak emaitza onekin (medikuntza, historia); titulazio berriak behar berriak asetzeko (ingenieritza berriak); eta, azkenik, sakonki aldatu behar



Inaxio Oliveri Hezkuntza sailburua, atzoko agerraldian.

diren titulazioak, haien matrikulazio «txikia» izaten dela eta.

«Kontuan izan behar da EHUK gaur eskaintzen dituen titulazioak gaurkotu behar direla, garapen sozioekonomikoak eskatzen duelako», azaldu zuen Oliverik. Titulazioak gaurkotzea eskatzen duten beste faktore bat «unibertsitatean gertatzen ari den egitura aldaketa» litzateke.

Azkenengo faktorea matrikulazioen jaitsiera litzateke.

Azken hiru urtetan matrikulazioen beherapena 5.000ekoa izan da. Oliveriren ustez, hau demografiaren beherapenaren ondorioa da. «Horrek planifikazio bat egitea exijitzen du, eta hori egiteko ildoak dekretu honek ematen ditu», argitu zuen Oliverik.

Dekretuaren irizpideak

Dekretua egiterakoan kontuan izandako irizpideak

honakoak izan dira: ziklo laburreko titulazioak campus ezberdinetan jartzea, eta ziklo luzekoak ez bikoiztea. Horren ondorioz, titulazioen eskaintza «oinarritzkoa eta zabala da» Inaxio Oliveriren ustez, «baina ez du bikoiztazunik».

Elebitasunaren sarrera ere indartuko da, Inaxio Oliverik baieztatu zuenez.

Dekretu honen bidez «Euskal Herriko Unibertsitateko titulazioak arrazionalizatzea bilatzen du», egokituz dauden formazio beharrei.

Kontuan hartuko dira lurralde bakoitzean dauden matrikulazio eta ikasle kopuruak ere.

Campus bakoitzak ematen zituen ikasketetaz baliatuko dira, finkatutako helburuak lortu arte.

Emakume bat aurkitu dute hilik Tolosan, Oria ibaian

■ Senideek bilatzeko eskatu zioten Ertzaintzari, ibaira erori ote zen beldurrez

Erredakzioa / Donostia


TOLOSAKO emakume baten gorpua aurkitu zuen Ertzaintzak atzo, Oria ibaian. Emakumeak 80 urte zituen, eta desagertu zela-eta, beren senideek Ertzaintzari eskatu zioten bilatzeko, Oria ibaira erori ote zen beldur.

Ertzaintzak bilaketa lanari ekin zion eguerdiko 12:00ak aldera, Eusko Jaurlaritzako Larrialdietarako zerbitzuko tekniko batekin eta Tolosako suhiltzaileekin batera. Haiei laguntzen, Ertzaintzaren helikoptero batek jardun zuen.

Emakumearen senideek Ertzaintzari esan zioten Oria ibaiko uretara eror zitekeela Tolosako Larremendi kalearen parean, han emakumeak erabili ohi zuen bastoi bat aurkitu baitzuten.

Datu hori jakinda, ibaiaren ertzak arakatzeari ekin zioten ertzainek eta suhiltzaileek, eta arratsaldeko 13:30ak aldera emakumearen gorpua aurkitu zuten. Gorpua ibaiaren erdiko aldean zegoen, uretan sartuta, Hernialde herrira doan bihurgunearen parean, Tolosatik Anota herrira doan errepedearen ondoan.

Emakumea uretatik atera ondoren, beharrezko diligentsia judizialak egin zituzten, eta ondoren Polloeko institutu anatomikora bidali zuten, Gipuzkoako hiriburura. Han autopsia egin zioten emakumeari.



INAKI VERGARA

«Ikastola hazi, hezi, bizi». Orereta ikastolaren esperientziatik abiatuta euskal irakaskuntza-ren bilakaeraren nondik norakoak islatzea helburu duen erakusketa zabaldu zuten atzo Errenterian, Kilometroak 99 ekitaldien barruan. Ikastolen hasiera garaiko ikasgela bat, orduko ikas-materialak eta ikasle zaharren argazkiak daude erakusgai, besteak beste.